

A. Laburpen exekutiboa

Gazteen artean nabaritutako behar batek sortu du gure proiektua, ezjakintasuna eta kontzeptuen ezagutza falta nabaria baita zuzenbidearen alorrean. Eskoletan irakasgai asko erakusten dira, matematika, historia, biologia... baina zuzenbideari buruz ematen zaigun informazioa oso urria da. Egia da interneten topatu dezakegula informazioa, baina hizkuntzari dagokionez euskaraz oso gutxi dago. Guztiz garrantzitsua iruditzen zaigu gazteek gai honen inguruan jakintza minimo bat edukitzea, izan ere, haiek izango baitira etorkizunean Ogasun Publikoari ordaindu beharko dutenak. Oso ekintza berritzailea iruditu zaigulako eta guri ere zuzenbideari buruz gehiago ikasteko balio izan digulako eraman dugu proiektu hau argitzera. Gure proiektuak eskaintzen duena teknologia berriak erabiliz zuzenbidearen alorrean barneratzea da, esaterako, “ZERGAtick?” aplikazioa dugu egunean fiskalitateari buruzko galdera bat egiten duena, “TREBA Gazteak” edo “TicketBAI”-rekin arituko gara lankidetzan haurrak txikitatik fiskalitatean trebatzeko. Hori bai, proiektu hau aurrera eramateko hainbat baliabide beharko ditugu, ekonomikoak eta teknologikoak adibide batzuk jartze aldera.

Lehenik eta behin, baliabide ekonomikoak behar ditugu gure softwarea kontrolatuko duten informatikoak ordaintzeko. Jarraitzeko, giza baliabideez ere baliatuko gara, fiskalitatean adituak diren pertsonez adibidez. Ideia garatzeko oinarritzko teknologia batzuk ere beharrezkoak izango ditugu, hots, gure proiektua sarean dago eta hori kontrolatzeko teknologia behar dugu. Hala eta guztiz ere, gure ideia garatzeko oinarritzkoena software garapenean oinarrituko gara, hori baita gure proiektua. Hau dena egiteko, 10 hilabete inguru behar izango ditugula kalkulatzeko dugu, pertsona aditu askoren laguntzaz.